Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2017ko abuztuaren 9a, asteazkena — 151 — Miércoles, a 9 de agosto de 2017

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## TOLOSAKO UDALA

*Euskara ikasteko diru laguntzen deialdia. BDNS (Identif.): 357678.*

Laburpena, Tolosako Udalaren 2017ko uztailaren 20ko 1.332 Alkatetza Dekretuarena, onartzen duena Tolosako udal euskaltegitik kanpo euskara ikasteko diru laguntzak emateko deialdia.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8 artikuluek diotenaren arabera, deialdiaren estraktua argitaratzen da, eta deialdiaren testu osoa «Base de Datos Nacional de Subvenciones» delakoan ikus daiteke: (http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index) eta Tolosako Udalaren web orrian (www.tolosa.eus).

*Lehena*. Onuradunak: Tolosan erroldatutako herritarrak.

*Bigarrena*. Xedea: Tolosako bizilagunak euskara ikasteko ikastaroetan parte hartzera bultzatzea.

*Hirugarrena.* Zuzkidura ekonomikoa: Tolosako Udalaren 2017ko aurrekontuko 0900 481.0133510 partidaren kargura, 5.000 euro.

*Laugarrena*. Kopurua: diru laguntza ikastaroaren eta norberaren egoeraren araberakoa izango da:

Aurrez aurreko eskoletan eta modulu konbinatuetan:

B2 arteko ikastaroetan, matrikularen % 75.

C1 ikastaroetan, matrikularen % 50.

C2 ikastaroetan, matrikularen % 25.

Autoikaskuntza:

Matrikularen % 75.

Matrikula osoaren laguntza emango zaie honako baldintza hauek betetzen dituztenei:

Familia unitateko kide bakoitzak urteko, batez beste, 8.979,60 euroko diru-sarrera gordina ez gainditzea.

Gizarteratzeko eta diru-sarrerak bermatzeko euskal sistemak eskaintzen dituen prestazio baterako baldintza ekonomikoak betetzea.

Familia ugariaren txartela indarrean edukitzea.

*Bosgarrena*. Eskaerak aurkezteko epea eta lekua: Udaletxeko erregistro bulegoan (UDATE), 2017ko irailaren 30a baino lehen.

Tolosa, 2017ko uztailaren 20.—Olatz Peon Ormazabal, alkatea. (5587)

## AYUNTAMIENTO DE TOLOSA

*Convocatoria de subvenciones para el aprendizaje de euskara.* BDNS (Identif.): 357678.

Extracto del Decreto de Alcaldía del Ayuntamiento de Tolosa n.º 1.332, de 20 de julio del 2017, por el se aprueba la convocatoria de subvenciones para el aprendizaje de euskara fuera del euskaltegi municipal de Tolosa.

De conformidad con lo previsto en los artículos 17.3.b y 20.8.a de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, se publica el extracto de la convocatoria cuyo texto completo puede consultarse en la Base de Datos Nacional de Subvenciones (http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index) y en el portal de internet del Ayuntamiento de Tolosa (www.tolosa.eus).

*Primero*. Beneficiarios: personas empadronadas en Tolosa.

*Segundo*. Objeto: impulsar la participación de la ciudadanía de Tolosa en cursos de aprendizaje de euskara.

*Tercero*. Dotación económica: Importe de 5.000 euros a cargo de la partida 0900 481.0133510 del presupuesto municipal del 2017.

*Cuarto*. Cuantía: subvención en función de las características del curso y de las circunstancias personales:

En clases presenciales y módulos combinados:

Cursos de nivel inferior o igual a B2, el 75 % de la matrícula.

Cursos de nivel C1, el 50 % de la matrícula.

En las de nivel C2, el 25 % de la matrícula.

Autoaprendizaje:

El 75 % de la matrícula.

Se subvencionará el 100 % de la matrícula a las personas que cumplan los siguientes requisitos:

Que cada miembro de la unidad familiar no tenga, como media, unos ingresos brutos anuales superiores a 8.979,60 €.

Cumplir los requisitos económicos para recibir una de las prestaciones para la inclusión social y la garantía de ingresos que ofrece el sistema vasco.

Poseer el título de familia numerosa en vigor.

*Quinto*. Plazo y lugar de presentación de solicitudes: en el registro municipal del Ayuntamiento de Tolosa (UDATE), antes del 30 de septiembre del 2017.

Tolosa, a 20 de julio de 2017.—La alcaldesa, Olatz Peon Ormazabal. (5587)

EK\CV GAO-I-2017-05587